EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

3/2023 Espedientea

PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ
AHOLKULARITZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIAK

I. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da laguntza teknikoa ematea, udalerrietan berdintasunaren arloko ekintza estrategikoak garatzeko, Berdinsarearen jardueraren bidez eta udalerri txikiagoetan. Kontua da programak eta ekintzak garatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko, espedientean agertzen den dokumentazio teknikoaren arabera.

Xedea	CPV kodea
Aukera Berdintasunari buruzko Aholkularitza Zerbitzua	98200000-5

2. KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Ebazpenaren aurreko txostenean jasota daude Elkarte honek honako Agiri honetan aipatutako kontratua egiteko izan dituen arrazoiak.

3. GAUZATZEKO EPEA

Zerbitzu-kontratuak urtebeteko indarraldia izango du, kontratua sinatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da, baina iraupen osoa ezin izango da bi urte baino gehiagokoa izan.

Hasierako kontratuaren iraupen-epea gainditu ondoren, kontratazio-organoak luzapena eman dezake, betiere, honako baldintza hauek betetzen badira:

- Kontratuaren ezaugarriak aldatzen ez badira, hau da, edukia aldatzen ez bada (izan daitezkeen aldaketen kalterik gabe).
- Kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez 2 hilabete lehenago jakinaraztea.
- Berariazko akordio bat egongo da kontratuaren epea amaitu baino lehen.

Kontratazio-organoak erabakiko du kontratua luzatzea, eta nahitaezkoa izango da enpresarentzat, betiere, kontratuaren indarraldia amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago jakinarazten bada.

Baldin eta epea igaro bada, kontratista berandutza-egoeran dagoela ulertuko da, eta, horretarako, ez da beharrezkoa izango Administrazioaren aldez aurreko agindurik.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren oinarrizko aurrekontua (gastu-muga + BEZ) 35.537,19 € izango da, gehi BEZari dagozkion 7.462,81 € (% 21), gehienez ere 43.000,00 €.

Kontratuaren balio zenbatetsia.

Kontratuaren balio zenbatetsia (kostuak + luzapenak, dena BEZik gabe) 71.074,38 eurokoa da.
SPKLren 100.2 artikuluan aurreikusitako ondorioak izan ditzan, aurrekontu hori era honetan banaka daiteke, gutxi gorabehera:

- Langileen kostuak: 80%
- Materialak: 8%
- Kostu ez-zuzenak: 12%

5. FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurtengo aurrekontuaren kargura finantzatzea aurreikusi da, dagokion aurrekontu-aplikazioan, Emakundek emandako dirulaguntza izendunari jarraikiz. Era berean, aurrekontu-gaietan eskumena duen organoak dagozkion kredituak gordeko ditu, ukitutako etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan.

6. ORDAINKETEN ARAUBIDEA

Laguntza teknikoaren prezioa ordainduko da kontratuaren ardura duen EUDELeko teknikariek entregatu, jaso eta ontzat eman ondoren, eta dagokion faktura aurkeztuta.

Adjudikazio-prezioaren % 50eko lehen faktura jaulkitzea:
2023ko ekainaren 9an.

Adjudikazio-prezioaren % 50eko bigarren faktura jaulkitzea:
2023ko abenduaren 30ean.

SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren arabera, eta dagozkion fakturetan jasota gera dadin, aditzera ematen da Zuzendaritza dela kontabilitate-arloan eskumenak dituen organoa.

Aginduan EUDELi eskatzen zaio egindako jardueren memoria eta egindako gastuen egiaztagiriak aurkezteko. Ondorioz, enpresa adjudikaziodunak dirulaguntza jasotzea bideragarri egiten duten egiaztagiriak bidali beharko ditu, datak baino lehen eta behar adinako aurrerapenarekin.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan ez dago prezioak berrikusi beharrik, hala jasota baitago SPKLren 103.1 artikuluan.

8. BERMEAK

Ez da bermerik eratuko, ez behin-behinekorik, ez behin betikorik.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu hau prozedura ireki sinplifikatuz esleituko da, SPKLren 159. artikuluko 1. paragrafotik 5.era bitartekoetan aurreikusita dagoenaren arabera. Prozedura hori izapidetzean, aipatutako legean eta hori garatzeko arauetan jasotako jarduerak jarraituko dira.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Honako lizitazio hau bitarteko elektronikoak erabiliz izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen xedapenak jarraituta. Horrenbestez, EUDELen eta lizitatzaileen arteko harremana ere bitarteko horiek erabiliz gauzatuko da.

11. . JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honi buruzko jakinarazpen eta komunikazio guztiak elektronikoki egingo dira, eta, horretarako, ondorengo prozesu hau jarraituko da:

1) **Hartzailearen esku jartzea.**
2) **Jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukia eskuratzea.**

Epeak jakinarazpenaren abisutik hasiko dira zenbatzen (baldin eta jakinarazpenaren xedea den egintza egun berean kontratatzailearen profilean argitaratu bada), edo jakinarazpena jaso denetik (baldin eta egintza ez bada egun berean kontratatzailearen profilean argitaratu).

Jakinarazpena eskura utzi denetik hamar egun natural igaro ondoren, hartzaileak jakinarazpena onartu ez baldin badu edo atzera bota baldin badu, jakinarazpena iraungitzat joko da eta jakinarazteko izapidea formalki bete dela ulertuko da.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Honako kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa daukaten pertsona natural edo juridikoek; behar den adinako kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala daukatenek; SPKLren 71.

artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetakoren batean nahastuta ez daudenek; eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatuta daudenek, prozedura ireki sinplifikaturako SPKLren 159.4 artikuluak exijitzen duen bezala. Kaudimena 16. klausulan ezarritako bitartekoen arabera egiaztatu eta ebaluatuko da.

Halaber, euren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordezkatuta egin ahal izango dute, horretarako ahalorde aski emanda. Pertsona juridiko baten ordezkari gisa kideren bat aurkeztu baldin bada, horretarako ahalmena duela agiri bidez justifikatu beharko du. Kasu batean zein bestean, ordezkariari aipatu ditugun kontratatzeko ezintasun-arrazoi horiek eragingo diote.

Pertsona horiek, era berean, kontratu honek xede duen jarduera edo prestazioa egiteko kasu bakoitzean eska daitekeen enpresa edo lanbide arloko gaikuntza izan beharko dute.

13. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Irizpide subjektibo eta objektiboak egongo dira, gehienez 100 punturekin.

Kontratua esleitzeko oinarri izan behar duten eskaintzak baloratzeko irizpideak eta ematen zaien ponderazioa honako hauek dira:

Irizpide horietatik, **balio-judizio** baten eta **gehienez 25 punturen** mende daudenak (prestazio intelektuala/aholkularitza), eta automatikoki baloratzeko irizpideen aurretik baloratuko direnak, honako hauek dira:

Balio-judizio baten arabera kuantifikatzen diren irizpideak: bai.
Ponderazioa, guztira: 25 puntu

Proposamen teknikoa (19 puntu) eta lantaldea (6 puntu) baloratuko dira, ondoren azaltzen diren irizpideen arabera.

Ebaluatutako eskaintzaren puntuazio teknikoa atal bakoitzean lortutako puntuazioen batura izango da, taula honen arabera:

Neurketa faktoreak

Gehieneko puntuazioa		Bikaina	Ona	Ertaina	Oinarrizkoa	Ez du ematen edo ez da egokitzen
		% 100	% 75	% 50	% 25	% 0
Proposamen teknikoa				**19**		
• Metodologiaren egokitasuna eta sendotasuna: filosofiara egokitzea, kalitatea	**10**	10,00	7.50	5,00	2.50	0,00
• Fasekako plangintza: bideragarritasuna eta koherentzia	**5**	5,00	3,75	2,50	1,25	0,00
• Originaltasuna eta berrikuntza	**4**	4,00	3,00	2,00	1,00	0,00
Lantaldea				**6**		
• Prestakuntza eta trebakuntza	**4**	4,00	3.00	2.00	1,00	0,00
• Fase eta zeregin guztietako langileen proportzionaltasuna eta profila	**2**	2,00	1,50	1,00	0,50	0,00

A) Irizpidea: PROPOSAMEN TEKNIKOA (19 puntu)

Irizpidea baloratzeko metodoaren deskribapena:

□ Metodologiaren egokitasuna eta sendotasuna (10 puntu)

Bikaina: 10, Ona: 7.50, Ertaina: 5,00, Oinarrizkoa:2.50, Ez du ematen edo ez da egokitzen: 0

- **Bikaina:** proposatutako metodologiak pleguko betekizunak jasotzen ditu, Eusko Jaurlaritzaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Planean eta Berdinsarean ezarritako helburuen barruan, Gobernu Onaren arloan eta tokiko eremuan berdintasunaren arloan esku hartzeko. Programen eta jardueren proposamenak argi eta zehatz garatzen dira, programen arteko barne-koherentziaz, balio handia eskainiz konponbideari, proposamenak erantzun onena berma dezan.

- **Ona:** proposatutako metodologiak pleguko betekizunak jasotzen ditu, Eusko Jaurlaritzaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Planean eta Berdinsarean ezarritako helburuen barruan, Gobernu Onaren arloan eta tokiko eremuan berdintasunaren arloan esku hartzeko. Programen eta jardueren proposamenak argi eta zehatz garatzen dira, kalitatea eskainiz konponbideari, proposamenak erantzun egokia berma dezan.

- **Ertaina:** proposatutako metodologiak pleguko betekizunak jasotzen ditu, Eusko Jaurlaritzaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Planean eta Gobernu Onaren arloko eta tokiko eremuan berdintasunaren arloan esku hartzeko. Programen eta jardueren garapenaren deskribapena eskasa da; beraz, itxuraz,

proposamenak zerbitzuaren beharrak asetzen ditu, baina ezin da ziurtatu horiek guztiak beteko direnik.

- **Oinarrizkoa:** proposatutako metodologiak, funtsean, baldintza teknikoen pleguko betekizunak betetzen ditu, baina zerbitzuaren funtsezko alderdiren bat garatu gabe dago.

- **Ez da aurkeztu edo ez dagokio:** proposamenak ez du auziari buruzko konponbiderik jasotzen, edo proposatutako irtenbideak ez ditu eskatutako eskakizunak betetzen.

 Fasekako plangintza: bideragarritasuna eta koherentzia (5 puntu)

Bikaina: 5 Ona; 3.75 Ertaina; 2.50; Oinarrizkoa: 1,25; Ez du ematen edo ez da egokitzen: 0

- **Bikaina:** proposatutako faseek eta programek denboralizazio eta artikulazio argia dute haien artean, bideragarritasun eta koherentzia handia ematen dute betearazpenean, eta balio handia dute konponbideari begira.

- **Ona:** proposatutako faseek eta programek bideragarritasun eta koherentzia egokia dute betearazpenean, eta kalitatea eskaintzen diote konponbideari.

- **Ertaina:** proposatutako faseek eta programek bideragarritasun eta koherentzia urria dute betearazpenaren deskribapenean, eta, beraz, ezin da ziurtatu beteko direnik.

- **Oinarrizkoa:** proposatutako faseek eta programek bideragarritasun eta koherentzia oinarrizkoa dute betearazpenean, baina zerbitzuaren funtsezko alderdiren bat garatu gabe dago.

- **Ez da aurkeztu edo ez dagokio:** proposamenak ez du fasekako plangintzarik jasotzen.

 Originaltasuna eta berrikuntza (4 puntu)

Bikaina: 4; Ona: 3,00; Ertaina: 2,00; Oinarrizkoa: 1,00, Ez du ematen edo ez da egokitzen: 0

- **Bikaina:** memoria teknikoak hobetzeko iradokizunak eta egiteko moduko proposamen metodologiko original eta sortzaileak aurkezten ditu, eta balio handia eskaintzen dio konponbideari.

- **Ona:** memoria teknikoak hobetzeko iradokizunak eta egiteko moduko proposamen metodologiko original eta sortzaileak aurkezten ditu, eta kalitatea eskaintzen dio konponbideari.

- **Ertaina:** memoria teknikoak hobetzeko iradokizunak eta proposamen originalak aurkezten ditu, baina ez dira egiteko modukoak, eta, beraz, ezin da ziurtatu beteko direnik.

- **Oinarrizkoa:** memoria teknikoak proposamen originalen bat aurkezten du, baina iradokizunen funtsezko alderdiren bat garatu gabe dago.

- **Ez da aurkeztu edo ez dagokio:** proposamenak ez du hobetzeko proposamenik jasotzen.

B) Irizpidea: LANTALDEA (6 puntu)

Irizpidea baloratzeko metodoaren deskribapena:

 Prestakuntza eta trebakuntza (4 puntu)

Bikaina: 4, Ona: 3.00; Ertaina: 2,00, Oinarrizkoa: 1,00, Ez du ematen edo ez da egokitzen: 0

- **Bikaina:** proposatutako lantaldeak prestakuntza teorikoa eta trebakuntza tekniko espezializatua eta programetarako esperientzia oso egokia ditu, eta balio handia ematen dio zerbitzuari.

- **Ona:** proposatutako lantaldeak prestakuntza teorikoa eta trebakuntza tekniko espezializatua eta programetarako esperientzia egokia ditu, eta kalitatea ematen dio zerbitzuari.

- **Ertaina:** proposatutako lantaldeak behar adinako prestakuntza eta trebakuntza ditu.

- **Oinarrizkoa:** proposatutako lantaldeak oinarrizko prestakuntza eta trebakuntza ditu, baina ez da aski zerbitzuari balioa emateko.

- **Ez da aurkeztu edo ez dagokio:** proposatutako lantaldeak ez du prestakuntzarik ez trebakuntzarik.

 Programa eta zereginetan diharduten langileen proportzionaltasuna eta lanbide profila (2 puntu)

Bikaina: 2.00; Ona: 1.50; Ertaina: 1,00; Oinarrizkoa: 0,50, Ez du ematen edo ez da egokitzen: 0

- **Bikaina:** fase eta zeregin desberdinetarako proposatutako langileen dedikazioan proportzionaltasuna dago, profil profesional dibertsifikatuak oso egokiak dira zeregin desberdinetarako, eta balio handia ematen diote betearazpenari.

- **Ona:** fase eta zeregin desberdinetarako proposatutako langileen dedikazioan proportzionaltasuna dago, profil profesionalak egokiak dira zeregin desberdinetarako, eta kalitatea ematen diote betearazpenari.

- **Ertaina:** fase eta zeregin desberdinetarako proposatutako langileen dedikazioan proportzionaltasuna dago, profil profesionalak eskas zehazten dira zeregin desberdinetarako, eta, beraz, ezin da ziurtatu beteko direnik.

- **Oinarrizkoa:** fase eta zeregin desberdinetarako proposatutako langileen dedikazioan proportzionaltasuna dago, profil profesionala oinarrizkoa da, eta, beraz, ez da aski betearazteko.

- **Ez da aurkeztu edo ez dagokio:** proposamenak ez du jasotzen fase eta zeregin desberdinetan diharduten langileen proportzionaltasuna eta lanbide-profilen aniztasuna.

Honako hauek dira **balorazio automatikorako irizpideak –gehienez ere 55 puntu emanez–,** eta horiek baloratzeko erabiliko diren formulak:

ESKAINTZA EKONOMIKOA: **75 PUNTU**
Eskaintzako puntuak = gehieneko X puntu kopurua (aurkeztutako eskaintzarik baxuena / baloratzeko eskaintza)

Kasu guztietan, zifrak BEZik gabe idatziko dira.

14. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-organoak ez du egokitzat jo Kontratazio Mahai bat eratzea (KBJ 24-1 art.).

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA AGIRIAK ESKURATZEA

Honako lizitazio hau EUDELen kontratatzailearen profilean iragarriko da, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman ostatatuta dagoen profilean, hain zuzen.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako plataformaren bitartez, 15 egun naturaleko epearen barruan, aipatutako iragarkia agertuko den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, aipatutako epearen azken eguneko 14:00ak arte.

Baldintza-agiriei edo, egokia baldin bada, lizitatzaileek eskatzen duten dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria (demiguel.e@eudel.eus; landaburu.jl@eudel.eus) proposamenak jasotzeko ezarritako azken eguna baino sei egun lehenago emango da, baldin eta eskaera aurretik adierazitako proposamenak jasotzeko epea amaitu baino gutxienez 8 egun lehenago egin bada.

SPKLren 136.2. eta 3. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria ezin izan denean adierazitako epeetan eman, edo eskaintzak tokian bertan bisita egin ondoren edo agiriari erantsitako dokumentazioa bertatik bertara kontsultatu ostean soilik egin ahal direnean, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, eragina jaso dezaketen izangaiek eskaintzak egiteko behar duten informazio guztia ezagutu ahal izateko komenigarritzat joko den denbora-tartean.

Honako lizitazio-prozedura honetan ez da onartuko lehen deskribatutako bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ez den eskaintzarik. Horretarako, ezinbestekoa da Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea.

Baldin eta eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada behar bezala ikusi, lizitatzaileak formatu digitalean aurkeztu ahal izango du oker dagoen fitxategiaren barruan sartutako dokumentua, hori jakinarazi zaionetik gehienez 24 orduko epean. Gerora aurkeztutako dokumentuan ezingo da eskaintzan sartutako jatorrizkoarekiko aldaketarik erantsi. Baldin eta Kontratazio Organoak dokumentuan aldaketak izan direla egiaztatu badu, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenek Administrazio Klausula Berezien Agiri honetan aurreikusita dagoenaren araberakoak izan beharko dute, eta, horiek aurkeztuta, lizitatzaileak baldintzarik gabe onartutzat emango ditu aipatutako klausulak edo baldintzak, inolako salbuespenik eta erreparorik gabe, eta Mahaiari eta Kontratazio Organoari baimena emango die Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean dauden datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Aldi baterako enpresa-elkartean ere ezin izango du proposamenik sinatu banaka egin baldin badu, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertu ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko lizitatzaileak sinatutako proposamenik.

Kalterik eragin gabe informazio publikoa eskuratzeari buruzko indarreko legerian eta esleipenaren publizitateari eta hautagaiei zein lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruzko SPKLren xedapenetan finkatuta dagoenari, lizitatzaileek konfidentzial moduan izendatu ahal izango dute eskaintzak egitean haiek emandako informazioaren zati bat, bereziki sekretu tekniko edo komertzialei eta alderdi konfidentzialei buruzkoa. EUDELek ezingo du informazio hori kasu bakoitzeko lizitatzailearen baimenik gabe zabaldu.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzaileek bi gutun-azal elektroniko aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta, eta klausula honetan horietako bakoitzerako zehaztuta dagoen edukiarekin.

"A" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- "GAITASUNA, KAUDIMENA ETA BALIO-IRITZI BIDEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK"

Gutun-azal honek honako dokumentu hauek izango ditu:

a) Gaitutako posta elektronikoko helbidea.

Gaitutako helbide elektroniko bat izendatzea, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatuta dagoenaren arabera; izendatze horretan, kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak egingo dira.

b) Lizitatzailearen Erantzukizunpeko adierazpena.

Adierazpen horretan, lizitatzaileak adieraziko du betetzen dituela EUDELekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak, bai eta Agiri honetan eta, bereziki, honen 12. eta 17. klausuletan kontratua eskuratzeko ezarrita dauden betekizunak ere.
Hala ere, Kontratazio Organoak, prozeduraren amaiera egokia bermatu ahal izateko, esleipenaren aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du lizitatzaileek kontratuaren esleipendun izateko honako Agiri honetan aipatutako baldintzak bete dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.

c) Aldi Baterako Enpresa Elkarte batean (ABEE) parte hartzen duten operadore ekonomikoen kasuan, kide bakoitzak bere Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Era berean, kontratuaren esleipendun gertatuz gero, formalki ABEEa eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, eta zehaztu egin beharko dituzte ABEE horren izenak, inguruabarrak eta partaidetza.

d) SPKLren 75. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu baldin bada, horietako bakoitzak ere Erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du.

e) I., III., IV. (borondatezkoa), V. eta VI. eranskinak.

f) Balioestea balio-iritzi baten mende daukaten irizpideei buruzko agiriak, Agiri honetako 13. klausulan adierazita daudenak.

BALIO-IRITZIAREN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK DOKUMENTATZEA.

Baloratzeko, lizitatzaileek proposamen tekniko bat aurkeztuko dute, jarraian adierazten diren eskema eta edukiekin:

1. Aurkibidea.
2. Identifikazioa eta irismena (proposamenaren laburpena).
3. Memoria teknikoa.
4. Proposatutako taldeari dagokionez: CVa, zerbitzua emateko esleitutako pertsona-kopurua (aplikatu beharreko lan-hitzarmenari buruzko informazio gehigarriarekin), Eudelekiko koordinatzailea eta solaskidea izendatzea, eta kide bakoitzak kontratatu beharreko lan-eremuetan udalekin egindako proiektuen kopurua.

“B” GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- “BALORAZIO AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEAK”

Gutun-azal honek honako dokumentu hauek izango ditu:

a) II. eranskinean jasotako ereduaren araberako proposamen ekonomikoa.

Legean eta honako Agiri honetan eskatzen diren nortasun, gaitasun eta kaudimen mailako baldintzak bete direla jakiteko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epea bukatzeko unea izango da.

17. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKITZEA ETA TRATATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, honako jarduera hauek egingo dira:

1. "A" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA

Kontratatzailearen profilean gutxienez 48 ordu lehenago argitaratuko den leku, egun eta orduan, "A" gutun-azala elektronikoki irekiko da, eta bertan jasotako dokumentazioa egiaztatuko da, kontratu hau eskuratzeko baldintzak betetzeari buruzkoa, bai eta balio-iritzi baten mende dauden esleitzeko irizpideei buruzkoa ere. Egintza horren ondoren, dokumentazioa zerbitzu teknikoei bidaliko zaie, aipatutako irizpide horiek balora ditzaten.

Horretarako, baldin eta beharrezkoa izango balitz honako dokumentazio honetan dauden akatsak edo ez-egiteak zuzentzea, gehienez ere sei egun balioduneko epea emango litzateke, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatu zuen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

2. B" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA ETA LEHENENGO SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGIN ARTEKO ONDORENGO JARDUKETAK

"A" gutun-azala ireki eta zerbitzu teknikoek balio-iritziaren mende dauden esleitzeko irizpideak balioetsi ostean, kontratatzailearen profilean iragarriko den lekuan, egunean eta orduan "B" gutun-azala irekiko du, eta honako jarduketa hauek egingo ditu:

1.- Balio-iritzien mende dauden esleitzeko irizpideak balioestearen emaitza ezagutarazi.

2.- Lizitatzaile bakoitzaren "B" gutun-azala ireki eta horko edukia irakurri.

Egintza horren ostean, saio berean, ondorengo jarduketa hauek egingo dira:

1.- Agiriko baldintzak eta eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu, egokia baldin bada.

2.- Formulak erabiliz automatikoki ebalua daitezkeen edo kuantifika daitezkeen irizpideak balioetsi.

3.- Eskaintza bakoitzak lortutako puntuazio osoa ezarri, eta handienetik txikienera sailkatu.

4.- Puntuazio onena lortu duen lizitatzailearen aldeko esleipen proposamena egin.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik eragingo proposatutako lizitatzailearen alde, eta ez ditu eskuratuko Elkartearen aurrean, harik eta kontratua formalizatu arte.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza nabarmen baxua dela uste baldin bada, ezohikoa, 149. artikuluan eta honako Agiri hauetan aurreikusitako hipotesiak betez, organoak aipatutako artikuluan aurreikusita dagoen prozedurari jarraituko dio, nahiz eta lizitatzaileak egindako eskaintza justifikatzeko gehieneko epea ezingo den izan 5 egun baliodun baino gehiagokoa, dagokion jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatzen hasita.

Egindako guztia espedientean jasoko da idatziz, nahitaez egin beharko diren jarraibideen araberako akten bitartez.

5.- Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean sartu, eta, kontratua esleitzeko proposatutako lizitatzaileari dagokionez, nortasunari, gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari buruzko datuen egiazkotasuna egiaztatu.

6.- Lizitatzaileari kontratua esleitzeko aurrekontua eskatu, komunikazio elektroniko bitartez, zazpi egun balioduneko epean, jakinarazpen hori bidaliko denetik zenbatzen hasita, ondoren adierazita dauden jarduketak egin ditzan edo agiriak aurkez ditzan:

a. Egokia baldin bada, lizitatzaileari behar diren baliabideak emango dizkioten erakundeen konpromisoaren ekarpena, SPKLren 75.2 artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.

b. Kasuari dagokion Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez dagoen kaudimenaren inguruko beste edozein dokumentu. Horri dagokionez, adierazi da kontratu hau eskuratzeko eska daitezkeen gutxieneko kaudimen-baldintzak eta bitartekoak ondorengo hauek direla:

   Lizitatzailearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala, SPKLren 87. artikulutik 90.era bitartekoetan ezarritako bitartekoen bidez. Adierazitako baliabideei dagokienez, enpresek kontratu jakin honetarako bete beharko dituzten gutxieneko kaudimen-baldintzak honako hauek izango dira:

   - ✓ Ezaugarriei eta prezioei dagokienez, azken hiru urteetan eskainitako antzeko 2 zerbitzu gutxienez.

c. Baldin eta paragrafo honetan aipatutako errekerimenduaren ostean aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak badaude, hiru egun naturaleko epea emango da horiek zuzentzeko. Epe hori zuzenean jakinaraziko zaio lizitatzaileari, eta kontratatzailearen profilean ere iragarriko

BALDIN ETA ERREKERIMENDUA BETETZEN EZ BADA

Baldin eta esleipendun izateko proposatutako hautagaiak ez baditu gainerako agiriak aurkeztu horretarako emandako epean, puntuazioan hurrengo izangaia denaren aldeko esleipen proposamena egingo da.

18. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontu-hartzailetzak gastuaren konpromisoa fiskalizatu ondoren, gehienez ere 5 egun naturaleko epearen barruan, 159.4 artikuluan adierazita dagoen bezala, Kontratazio Organoak kontratua esleitzea erabakiko du, lehen sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun balioduneko epearen barruan, SPKLren 150.3 artikuluan xedatuta dagoena aplikatuz.

Esleipena lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua gauzatzeko, lizitazioaren baldintzetara zehatz egokituko den dokumentu bat formalizatuko da, eta agiri hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan sartzeko.
Esleitzearen jakinarazpenean adieraziko den epean, gehienez ere 15 egun balioduneko epearen barruan, esleipendunak EUDELen agertu beharko du, kontratua dokumentuan formalizatzeko.

19. KONTRATUA EZ BURUTZEKO ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEKO ERABAKIA

SPKLren 152. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera, Kontratazio Organoak, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik, kontratua ez esleitzeko edo ez burutzeko erabakia hartu ahal izango du. Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du, baldin eta kontratua prestatzeko arauetan edo esleitzeko prozedura erregulatzeko arauetan zuzendu ezin den arau-hausteren bat hauteman badu. Bai kontratua ez burutzeko erabakia eta bai prozeduran atzera egiteko erabakia kontratua formalizatu baino lehenago hartu beharko dira biak ala biak, betiere, aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.

III. KONTRATUA GAUZATZEA

20. KONTRATUA GAUZATZEKO ARAUBIDE OROKORRA

Kontratistak arriskua eta zoria bere gain hartuta gauzatuko da kontratua, honako Agiri honetan jasotako klausulen arabera, eta, egokia baldin bada, espedienteari atxikitako zehaztapen teknikoak jarraituta; eta EUDELek zuzenduta, ikuskatuta eta kontrolatuta, horretarako dauzkan ahalmenak idatziz zein ahoz baliatuz.

Kontratistari edo haren mendeko pertsonei lepora dakizkiekeen egiteen edo ez-egiteen ondorioz kontratuaren gauzatze egokia arriskuan jarriz gero, EUDELek beharrezko iritzitako neurriak hartzeko eskatu ahal izango du, kontratua behar bezala gauzatzea lortu edo onbidera dadin.

SPKLren 202.1 artikuluan aurreikusita dagoenarekin bat etorriz, kontratu hau gauzatzeko, gizarte, lan, etika edo ingurumen izaera edo beste izaera bat daukaten ondorengo baldintza berezi hauek eskatuko dira:

Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako gauzatze-baldintza sozialak:

Prestazioa gauzatzean, enpresa esleipendunak lan-merkatuan emakumeen eta gizonen artean tratu eta aukera mailako berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu beharko ditu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusita dagoenaren arabera.

Kontratua gauzatzeko behar diren dokumentu eta material guztietan hizkera ez-sexista erabiliko da, emakumeen irudi diskriminatzaile oro saihestuko da, eta berdintasunaren, dibertsitatearen, rol aniztasunaren eta erantzunkidetasunaren balioak biltzen dituen irudia sustatuko da.

Honako kontratu honi emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako izaera sozialeko gauzatze-baldintzak erantsi zaizkio.

Horretarako, honako klausula hauek erantsi dira:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak betetzea.
- Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztiek hizkuntza ez-sexista erabili beharko dute, emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak eragiten dituen edozein irudi saihestu beharko dute, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero mailako rol eta identitate anitzeko balioak dituen irudia sustatu beharko dute.
- Ahalegina egingo da kontratuak helburu duen lana gauzatzeko lan-kontratua duten pertsonen %50, gutxienez, emakumeak izan daitezen.
- 250 langile baino gehiago dauzkaten enpresek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusita dagoen Plana diseinatu eta aplikatu izana egiaztatu beharko dute.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa aplikatuko dela bermatuko da kontratuko erakunde esleipendunaren plantillan, honako arlo hauei dagokienez: prestakuntza, hautaketa, lanbide-sailkapena, arreta, sustapena, ordainsaria, egonkortasuna edo iraunkortasuna, ordezkaritza, laneko segurtasuna eta osasuna, edo lanaldiaren iraupena eta antolamendua.
- Kontratuaren diseinuak eta gauzatzeak genero-ikuspegia jaso beharko dute diagnostikoan, helburuetan, jardueretan eta ebaluazioan. Beste hainbestean, azken justifikazioak memoria bat izan beharko du kontratazioaren genero-eraginari buruz, aplikatutako berdintasun-neurrien eraginkortasuna ebaluatzeko aukera emango duten adierazleak eta datuak jasoko dituena, erabiltzaileen edo onuradunen edo zerbitzua ematen duten langileen sexuaren arabera bereizita.

Baldintza horiek funtsezko izaera daukaten kontratu-betebehar moduan eratu dira, eta, baldintza horiek beteko ez balira, Kontratazio Organoak kontratua suntsiarazi ahal izango luke ez-betetze erruduna gauzatzeagatik, SPKLTBren 223.f) artikuluan jasota dagoena jarraituz; edo, bestela, kontratua gauzatzen jarraitu ahal izango luke, zigor bat ezarrita, zeina kontratazio-organoak ez-

betetzearen larritasunaren eta ondorioen arabera zenbatetsiko lukeen, SPKLTBren 212.1 artikuluan dioen eran, kontratuaren aurrekontuaren %5etik %10era bitartekoa.

Betebehar horiek berariaz araututa daude 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 118. artikuluan, 2004/18/EE Zuzentarauaren 24. artikuluan, 3/2007 Lege Organikoaren 33. eta 34. artikuluetan, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.2. artikuluan eta Autonomia Erkidegoko Administrazioko eta haren sektore publikoko kontratazioan irizpide sozialak, ingurumenekoak eta bestelako politika publikoak txertatzeari buruzko Eusko Jaurlaritzaren Erabakiaren IX.3 paragrafoan.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebehartzat hartuko dira, eta, beraz, SPKLren 201. artikuluan aurreikusita dagoenaren babesean, baldintza horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat hartu ahal izango da, lege horren 211.1.f) artikuluan adierazita dauden ondorioetarako.

21. KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK

Kontratistak nahitaez bete beharko ditu lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloetan indarrean dauden legezko xedapenak, bai eta aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren araberako soldata-baldintzak ere, hori guztia kontratu honen xede diren zerbitzuetan lan egiten duten langileei dagokienez. EUDELek ez du erantzukizunik izango ez-betetze horren inguruan.

22. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

SPKLren 196. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, kontratista izango da kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren eragiketen ondorioz eragingo diren kalte-galeren erantzulea.

23. KONTRATUKO ALDAKETAK

EUDELek kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, ondoren adierazita dauden kasuetan, baldintzetan, irismenarekin eta mugekin:

Aldaketek eragin diezaioketen kontratuaren prezioaren gehieneko ehunekoa: %20a.

Hala ere, kontratua orobat aldatu ahal izango da SPKLren 205. artikuluan berariaz aurreikusitako egoeraren bat gertatu baldin bada, Lege beraren 203., 206. eta 207. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, eta, betiere, horrekin lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatu ez badira.

Aipatu berri ditugun aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

24. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Baldin eta kontratazio honek datu pertsonalak eskuratzea eragingo badu, kontratistak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorretik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu, bai eta SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarritik eratorritakoak ere, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta hura garatzeko araudiarekin lotuta.

25. PRESTAZIOA JASOTZEA ETA BERME-EPEA

Kontratuak helburu duen prestazioa amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean, prestazioa jasotzeko egintza formal eta positiboa gauzatuko da.

Kontratu honen izaera dela-eta, ez dago aurreikusita berme-epea ezartzerik.

26. ZIGORRA KONTRATISTARI, EZ BETETZEAGATIK

A. Kontratua gauzatzeko epeak ez betetzea

Baldin eta kontratista, berari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua gauzatzeko epeari dagokionez berandutze-egoeran sartu bada, dela epe osoari begira, dela kasu bakoitzean dagozkion epe partzialei begira, EUDELek bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, bermea galduta, edo zigorrak ezartzea, kontratuaren prezioko 1.000 euroko zenbateko bakoitzeko eguneko 0,60 euroko proportzioan, BEZik gabe.

Berandutzeagatik jasotako zigorrak kontratuaren prezioaren ehuneko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, Kontratazio Organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo zigor berriak ezarrita gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.

B. Prestazioen gauzatze partziala ez betetzea

Baldin eta kontratistak, berari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehaztutako prestazioen gauzatze partziala bete ez badu, EUDELek bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea edo kontratuaren prezio osoaren ehuneko 10eko zigorra ezartzea.

C. Betetze akastuna

Baldin eta prestazioa behar bezala betetzen ez bada, EUDELek zigorrak ezarri ahal izango ditu; horietako bakoitza ezingo da izan, BEZik gabe, kontratuaren prezioaren ehuneko 10a baino gehiagokoa, eta zigorrak guztira ezingo dira izan hitzartutako prezioaren ehuneko 50a baino handiagoak.

D. Ingurumen, gizarte edo lan arloko betebeharrak ez betetzea

Baldin eta kontratistak ingurumen, gizarte edo lan arloan dauzkan betebeharrak betetzen ez baditu, batez ere soldatak ordaintzean behin eta berriz atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza kaxkarragoak aplikatu baditu, era larrian eta iruzurrez, EUDELek, SPKLren 201. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, zigorrak ezarri ahal izango ditu. Zigor horietako bakoitza ez da izango, BEZik gabe, kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorakoa, eta zigor horiek, guztira, ezingo dira izan hitzartutako prezioaren ehuneko 50a baino handiagoak.

E. Azpikontratistekiko betebeharrak ez betetzea

SPKLren 217. artikuluan xedatuta dagoenari kalterik eragin gabe, kontratistak azpikontratistekiko betebeharrak bete ez dituenean, EUDELek zigorrak ezarri ahal izango dizkio. Zigor horietako bakoitza ez da izango, BEZik gabe, kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorakoa, eta zigor horien guztizkoak ezingo du gainditu hitzartutako prezioaren ehuneko 50a.

F. Langileak subrogatzeko betebeharrak ez betetzea

Baldin eta kontratistak kontratuak helburu duen zerbitzuaren eraginpeko langileen subrogazio-betebeharrak betetzen ez baditu, EUDELek, SPKLren 130.4 artikuluan aurreikusita dagoena aplikatuz, zigorrak ezarri ahal izango ditu. Zigor horietako bakoitza ez da izango, BEZik gabe, kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorakoa, eta zigor horien guztizkoak ezingo du gainditu hitzartutako prezioaren ehuneko 50a.

27. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Zerbitzu-kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak.

28. KONTRATUAREN LAGAPENA

Kontratutik eratorritako eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratistak, baldin eta:

a) lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak ez badira kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak izan,
b) lagapenaren eraginez merkatuan lehia benetan murriztu ez bada,
c) lagapenak ez badakar funtsezko aldaketarik kontratistaren ezaugarrietan, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak izanda, eta
d) lagapena SPKLren 214.2 artikuluan jasotako betekizun eta eskakizunen arabera egin bada.

29. AZPIKONTRATATZEA

Kontratistak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du prestazioaren zati bat. Edonola ere, azpikontratazio hori Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetako baldintzak betetzearen mende egongo da.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

30. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Honako Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratua pribatua izango da, eta Agiri honek eta honekin batera doazen gainerako agiri teknikoek arautuko dute. Agiri honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatuta dagoena beteko da, eta, lege horren aurka ez doan orori dagokionez, honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua eta, egokia baldin bada, administrazio publikoen kontratazioari aplikatu beharreko gainerako arauak.

Baldin eta honako Administrazio Klausula Partikularren Agiri hau eta espedienteari erantsitako gainerako agiri teknikoak bat ez badatoz, Agiri honetan xedatuta dagoena gailenduko da.

31. EUDELEN ESKUMENAK

EUDELi honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua betetzeak eragin ditzakeen zalantzak ebaztea, interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratua betearaztearen ondorioz kontratistari lepora dakiokeen erantzukizuna adieraztea, kontratua etetea, kontratua suntsiaraztea eta horren ondorioak zehaztea, betiere, SPKLn eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta bertan ezarritako betekizunei eta ondorioei lotuta.

32. AGINTARITZA ESKUDUNA ETA ERREKURTSOAK.

Honako Kontratu honetatik erator daitezkeen gai eztabaidagarriak Kontratazio Organoak ebatziko ditu, hargatik eragotzi gabe eskumeneko agintaritzaren aurrean errekurtsoak aurkeztea, egokia baldin bada, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 27.2 artikuluan, edo Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako beste edozeinetan ezarritakoari jarraiki, betiere EUDELen KBJen arabera.

33.- EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIAL ETA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK.

33.1.- Lanen jabetza.

Edozein fasetan egindako lanak botere adjudikatzailearenak dira, eta, ondorioz, botere adjudikatzaileak edozein unetan eskatu ahal izango du prestazioen zati bat ematea, betiere, behin betiko prestazio-programarekin bateragarria bada eta lanen garapen egokian eraginik ez badu.

Era berean, kontratistak eskatu ahal izango du prestazioa aldez aurretik jasotzea, eta botere adjudikatzaileak ahalmena izango du harrera hori onartzeko.

33.2.- Jabetza industrial eta intelektuala.

Jabetza intelektual edo industrialeko eskubide batek babestutako produktuak garatzeko eta eskura jartzeko xedea duten zerbitzu-kontratuek berekin ekarriko dute hura botere adjudikatzaile kontratatzaileari lagatzea.

Ondorioz, Eudelek, ekoizpenaren jatorrizko formatuaz gain, jabetza intelektualaren eskubideak eskuratzen ditu, eta, bereziki, lortutako obra edo produktua erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko eta eraldatzeko eskubideak, bai eta ekonomikoki ustiatu daitezkeen gainerakoak ere. Jabetza intelektualaren eskubide horiek esklusiboki eskuratzen dira, sinaduraren egunean dagoen edozein ustiapen- eta/edo euskarri-modalitateren gainean, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginean aurreikusitako

gehieneko iraupenaz eta munduko herrialde guztietara hedatzen den lurralde-eremuaz, salbuespenik gabe.

Eskubide horren titulartasunak, lanaz edo azken produktuaz gain, honako hauek ere hartzen ditu: garatzeko egindako lanak, zirriborroak, eskemak, aurretiazko dokumentuak, fluxu-diagramak, eta, oro har, jabetza intelektual eta industriala izan dezaketen lan guztiak.

Kontratistak xehetasunez jakinarazi beharko dizkio Eudeli kontratatutako lanaren emaitzan sartuko diren eta aldez aurretik zeuden kontribuzioen gainean hirugarrenek izan ditzaketen erreserba eta legezko eskubide guztiak. Kontratistaren betebeharra da behar bezala bermatzea eskubide eta erreserba horiei lotutako elementu guztien erabateko erabilgarritasuna, eta horrek ekar ditzakeen kostuak bere gain hartzea.

Kontratista erabateko erantzulea izango da eta bere kontura izango dira eskubide horiei lotutako erreklamazio guztiak, eta Eudeli kalte-ordaina eman beharko dio, erreklamazioak aurkeztean Eudeli sor dakizkiokeen kalte-galerengatik, ordezkaritzako eta defentsako gastuak barne hartuta.

Kontratuaren xedea aplikazio informatikoak egitea eta garatzea bada, hirugarrenen lege-eskubideei eta erreserbei buruz aurreko paragrafoan dagoen informazioak nahitaez jaso beharko ditu erabilitako iturri guztien erreferentzia, horien bertsioa eta jatorria, osagai bakoitzari aplikatutako lizentziak, eta horien erabilera konpilazioan edo gauzatzean egiten den.

Kontratistak edo betearazpenean parte hartu duen edozein pertsonak ezin izango du lana beretzat erabili, ezta hirugarren batzuei kontratatutako lanaren filmazioaren, testuen, marrazkien, argazkien edo antzekoen zatiak eman ere; eta, orobat, ezin izango du haren edukia osorik edo zati batean argitaratu, Eudelen berariazko eta idatzizko baimenik gabe. Era berean, ez dira saiatuko kontratuaren ondoriozko jabetza industrial edo intelektualeko eskubide berberak edo antzekoak erregistratzen, eta betebehar horrek amaitu arte iraungo du. Nolanahi ere, betebehar horiek ez betetzearen ondoriozko kalte-galeren erantzulea kontratista izango da.

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Kontratistak konpromisoa hartzen du Eudelekin lankidetzan aritzeko eta sinatzeko Eudelek klausula honetan aipatutako eskubide guztiak eskuratu edota babesteko behar dituen dokumentu guztiak.

Bilbon, 2023ko otsailaren 15ean

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

I. ERANSKINA. KONTRATATZEKO ESKAKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO ADIERAZPEN-EREDUA

Nik, ... jaunak/andreak, helbidea ....., PK:....., NAN zk. ....., telefono zk. ....., e-maila ..... izanik, gaitasun juridiko osoaren eta jarduteko gaitasun osoaren jabe, nire izenean (edo.....(r)en ordezkari gisa, helbidea ....., PK:..... eta telefono zk. ..... dituena, pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera NAN edo IFZ zk. ..... izanda), jakinik ..... (e)k prozedura deitu duela ..... kontratatzeko, nire erantzukizunpean,

ADIERAZI DUT

I. Aipatutako sozietatea, haren administratzaileak, legezko ordezkariak eta sinatzailea ez daudela Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan adierazita dauden kontratatzeko debeku- eta bateraezintasun-kausetan nahastuta.

II. Adierazitako sozietate horrek eguneratuta dauzkala bai indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta bai Gizarte Segurantzarekikoak.

III. Adierazitako sozietate hori Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokion epigrafean alta emanda dagoela.

IV. Adierazitako sozietate horrek ez daukala zerga-zorrik administrazio kontratatzailearekin ordaintzeko betearazte-aldian, edo zor horiek bermatuta dauzkala.

V. Adierazitako sozietate horrek Administrazio Klausula Berezien Agirian kontratu hau eskuratzeko ezarrita dauden eskakizun guzti-guztiak bete dituela, eta, bereziki, 12. eta 17. klausuletan adierazita daudenak.

.....(e)n,..... (e)ko ..... aren ..... (e)(a)n.

Sinadura

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

II. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Nik, ... jaunak/andreak, helbidea ....., PK:....., NAN zk. ....., telefono zk. ....., e-maila ..... izanik, gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoaren jabe, nire izenean (edo.....(r)en ordezkari gisa, helbidea ....., PK:..... eta telefono zk. ..... dituena, pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera NAN edo IFZ zk. ..... izanda), jakinik ..... (e)k prozedura deitu duela ..... kontratatzeko, nire erantzukizunpean,

ADIERAZI DUT

1) Hitza eman dudala proposamena gauzatzeko ..... €-ko prezioan, horri ..... € erantsita, BEZaren %.....ari dagozkionak, eta. .....ko epean, eta ulertuta kontu-azalpen guztiak zehaztutako baldintzen barruan daudela, edozein zerga-alorretako zergak, gastuak, tasak eta arielak barne, bai eta kontratistaren etekin industriala ere.

2) Ezagutu ditudala Preskripzio Teknikoen Agiria, Administrazio Klausula Berezien Agiria eta honako kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak, eta oso-osorik onartu eta ontzat eman ditudala.

3) Ordezkatzen dudan enpresak bete dituela hori irekitzeko, instalatzeko eta jardunean jartzeko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebehar guztiak.

.....(e)n,..... (e)ko ..... aren ..... (e)(a)n.

Sinadura

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

III. ERANSKINA. BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA

..... jaunak/andreak, NAN zk. ..... izanda, bere izenean edo (lizitatzailea) .....(r)en ordezkari gisa, zeinak IFZ zk. ..... duen, ... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZI DU

Kontratua gauzatzeko atxiki beharreko baliabideei dagokienez, honako hau:

I.- Hitza eman du "*Baliabideak atxikitzeko konpromisoa*" koadroan agertzen diren baliabideak kontratua gauzatze aldera atxikitzeko.

II.- Hitza eman du Kontratazio Organoak eska diezaiokeen dokumentazio guztia aurkezteko, Karatula **ATALAREN** barruan, eta "*Baliabideak atxikitzeko konpromisoa*" koadroan identifikatutako baliabideak eskura dauzkala egiaztatzeko, SPKLren 150.2 artikuluan ezarritako epearen barruan. **GIZA BALIABIDEAK**
PROPOSATUTAKO GIZA BALIABIDEAK
BALIABIDE MATERIALAK
PROPOSATUTAKO BALIABIDE MATERIALAK

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

IV. ERANSKINA. ESKAINTZAN JASOTAKO INFORMAZIO JAKIN BAT KONFIDENTZIAL MODUAN IZENDATZEA

..... jaunak/andreak, NAN zk. ..... izanda, bere izenean edo (lizitatzailea) .....(r)en ordezkari gisa, zeinak IFZ zk. ..... duen, ... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZI DU

(*) zenbakidun kontratazio-espedienteko [...] gutun-azale(t)an (adierazi zein gutun-azal den) aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, konfidentzialtzat jo direla eskaintzako ondorengo informazio eta alderdi hauek, sekretu tekniko edo komertzialekin duten lotura dela-eta:
[...]

Konfidentzialtasun hori honako arrazoi hauen bitartez justifikatu da: [...]

.....(e)n, 20...(e)ko .....ren .....(e)(a)n.

[Enpresaren/lizitatzailearen izena].

_____

[...] jn./and.

(*) Espediente-zenbakia adierazi.

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

V. ERANSKINA. KOMUNIKAZIOETARAKO ETA JAKINARAZPENETARAKO DATUAK

..... jaunak/andreak, NAN zk. ..... izanda, bere izenean edo (lizitatzailea) .....(r)en ordezkari gisa, zeinak IFZ zk. ..... duen, ... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZI DU

Jakinarazpenak eta komunikazioak egiteko datuak honako hauek direla:
Datu orokorrak:

Enpresa lizitatzailearen izena:

IFK / IFZ:

Jarduera nagusia:

Helbide soziala: Egoitza nagusia:
EAEko ordezkaritzak:

Langile kop.: Guztira:
EAEn:

Negozio-bolumena: Guztira:
EAEn:

Kontratisten Erregistro Ofizialaren ziurtagiria (bai/ez):

Kudeaketa-sistemen ziurtagiria (ISO, UNE edo baliokideak):

Jakinarazpenetarako datuak:

Jakinarazpenen hartzailea:

Posta elektronikoko helbidea:

Jakinazpenetarako hizkuntza: Euskara = [ ]
Gaztelania = [ ]

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

VI. ERANSKINA. KONTRATUAREN XEDEA BETETZEN DUTEN PERTSONEKIKO BERDINTASUN ETA ERRESPETU MAILAN ONARTU DITUEN KONPROMISOEI BURUZKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak, NAN zk. ..... izanda, bere izenean edo (lizitatzailea) .....(r)en ordezkari gisa, zeinak IFZ zk. ..... duen, ... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZI DU

I.- Ordezkatzen duen erakundeak ez duela zehapenik jaso arau-hauste oso larria egiteagatik, eta ez dutela inoiz zigortu administrazio-ebazpen edo epai judizial irmo bidez, Langileen Estatutuan edo aplikatu beharreko hitzarmenean berdintasunari buruz ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

II.- Ordezkatzen duen erakundeak Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatua betetzen duela.

III.- Kontratuak helburu duen jarduera egiten duten langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa, esleipenduna izanez gero, honako hau dela: [……]

IV.- Esleipenduna izanez gero, kontratuaren arduradunak edo Kontratazio Organoak langile gizon-emakume horiei egiaz aplikatu zaizkien lan-baldintzei buruz eska dezakeen informazio guztia emango duela kontratua gauzatzen ari den bitartean.

V.- Esleipenduna izanez gero, kontratua gauzatzen ari den bitartean, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan jasota dagoen soldata ordainduko duela, langile bakoitzari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.

VI.- Bere borondatez onartzen duela gardentasun instituzionala eskaintzea kontratua esleitzeko prozeduratik eta gauzatzetik eratorritako datu guztiei, harik eta kontratua amaitu arte.

VII.- Kontratua gauzatzeko hitza eman duela, kontratistari dagozkion eta kontratua gauzatzeari atxikitako langileei dagokienez Agirian ezarrita dauden betebeharrak zorrotz betez.

.....(e)n, 20...(e)ko .....ren .....(e)(a)n.

[Enpresaren/lizitatzailearen izena].

[...] jn./and.